

#### **4. DIRU-ITURRIAK**

- **Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?**

Gure enpresaren diru-sarrera nagusia produktuaren salmenta da. Proiektuaren mozkinak, irabaziko duguna kostuak kenduta, zati berdinetan banatuko ditugu partaideen artean, hau da, lau partaide garenez, bakoitzak irabazien %25 irabaziko du.

Gure proiektuak hasieran inbertsio handia behar izango du: biltegiaren alokairua, haur-kotxeak egingo digun enpresa, patinete elektrikoa egingo digun enpresa eta garraio-enpresa, beraz, gehiago saltzen saiatuko gara, adibidez kartelak ipiniz edo ahoz-ahoz zabaltzen, diru-sarrera gehiago lortzeko inbertsio hori berreskuratzeko.